

## Ihesi

ENEKO SALABERRIA

Euskal Herria ezagutzuz: **Hondarribia-Getaria (Gipuzkoa)**

# Kresalean hegaldiak

Euskal kostaldeak bi munduren arteko muga ezartzen du; gazi eta bustia batetik, idor eta aldakorra bestetik. Gipuzkoako erdi eta ekialdean, denboran galduriko lerroa ezagutzeko aitzakia itsas hegaziak izan dira oraingoan. Haien behatzeko lekuri proposenak lurmuturrak izanik, saltoka ibili gara Hondarribia, Donostia eta Getaria artean.

Gure abiapuntua Hondarribia da. Aisialdirako erabiltzen diren ontzien tartea azken urteotan asko emendatu bada ere, herri arrantzaleen kutsua nabaria da herrian. Arrantzaleen joan-etorrien lekukoa den itsasargia Jaizkibel mendia magalean dago, eta haren azpiko aldean gure lehendabiziko geldilekua, Higer lurmuturra. Bertatik GR 11 ibilbidea abiatzen da, Pirinioen hegoaldeko isuritik Gironako (Katalunia) Creus lurmutu-

rerraino doana, alegia. Itsasargiraino heltzeko, herritik abiatzen den errepidea erabili dezakegu.

Behin itsasargian, Higer lurmuturreraino jaisteko hainbat bidexka zabaltzen dira. Ikuspegiak hunkigarriak dira guztiz, itsasoaren indarra bihotzeraino sentitu baitaiteke. Lurmuturra kirtena izaki, itsas hegaztien babesleku bilakatzen da, eta haren inguruak hainbat espezieren bazkaleku. Primatiko eta gida-liburu soil baten laguntzarekin, gure

kostaldean ugarienak diren espezieak ikusi eta identifikatzeko ez dugu inolako arazorik izango. Hala, urtaroaren arabera zanga (*Morus bassanus*) gazte, heldugabe edo helduak ikusteko aukera izango dugu.

## Uliako labarrak

Mendebalderantz jarraituz, hurrengo geltokia topatuko dugu, Uli mendia. Donostia eta Pasaia arteko inguruak edertasun handia gordezten du, eta uharte antzeko oasizat



ENEKO SALABERRIA

Higer lurmuturra, Hondarribian, itsas hegaztientzat babesleku aparta da. Bertan aurkitu daitekeen espezierik ugarienetakoa zanga da, aurreko orrialdeko eta azpiko argazkietan ageri dena.

har daiteke. Mendebaldean Donostia, hegoaldean errepede-sareak, ekialdean Pasaia eta iparrean itsasoa. Aukera ugari eskaintzen ditu Uliá mendiak, bai basoan barrena ibilaldi lasaiak egiteko bai itsasertzeko bideak erabilia labarren bortizkeriaz gozatze-ko. Itsas hegaz-

tien arrastoaren atzetik gabiltzanez gero, iparreko bideak hautatuko ditugu, eta hala itsaslabarrak nola harriz mugaturiko senaiak bidaide izango ditugu.

Badira bi espezie itxuraz nahiko antzekoak, eta biak bereizteko arreta handia behar da. Biak dira zuri-belutzak eta isats laburrekoak, hego estuak dituzte eta hegaldi azkarrak egiteko gai dira: pottorroa (*Alca torda*) eta martina (*Uria aalge*). Uliako leku lasairen batean jarrita, haien mugimendu bitxiak liluratu gaitzaten utz dezakegu, eta gida-liburuaren argibideak

jarraituta bi espezie “biki” horien arteko bereizketa egiten saiatu.

Sartalderako bidean, Igeldo-Mendizorrotz mendia atzean utzi ondoren, Orío eta Zarautz zeharkatuko ditugu, Getariara iristeko. Juan Sebastian Elkano marinela handiaren jaioterriko portutik bertatik San Anton lurmuturrerako bidea hartuko dugu. Lurmutur honen itxura berezia izanagatik, Getariako arratoia goitizenez ezaguna da. Kondaira bitxi baten arabera, muinoa Keta izeneko mutiko baten gorputza da. Antza, beragatik borrokatzen zuten emakumeen liskarrak ezin zituen jasan eta zeruari eskatu zion harri bilaka zezan. Esan eta egin. Gerora Ketaren magalean sorturiko herriak Getaria izena hartu zuen. Hau da, Keta-harria. Hori kondaira da noski, ondo jakina baita herriaren izena latinezko *cetaria*-tik –hala esaten zitzaizen erromatarren kontserba fabrikei– datorrela.

San Anton lurmuturra ere nahiko egokia da itsas hegaztien behaketarako. Izan ere, oso metodologia zehatzean oinarritutako behaketak egiten dira hileko lehenengo larunbatetan, hartara aproposak diren zenbait lurmuturretan, eta horietako bat San Anton da, dagoeneko aipatu dugun Higerrekin eta Matxitxakorekin (Bermeo, Bizkaia) batera.

San Antonen, hainbat gabai espezieren (*Puffinus mauretanicus*, *Puffinus puffinus*...) hegaldiak erraztasun handiz ikusteko aukera eskaintzen du lekuak. Zortea edukiz gero, ez da zaila hegazti behaketan adituak diren lagunekin topo egitea, bisitari askoz ere zuku gehiago ateraz. ■



gozatu euskaraz

Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia